


"DANA ITZI TA JARRAITU NIRI"

Doinua: "Ikusten dozu"



1

Dabit, Daniel gazteak
amets ederrez beteak
gorputzez luze tenteak.
"Jarraitu Niri" deia eginda
ozenki Jesus maiteak,
hautsiz munduko kateak,
itziz etxe ta besteak,
zer poz baietz esateak"

2

Bizitzako lege zaharra
aukerak egin beharra
eta norbera bakarra.
Nazaretoko Maisu argiak
badau oraindik indarra:
entzunaz Haren dearra
horra erantzun azkarra:
Gaur nozu Pasiotarra".

3

Zer dauken emotekorik?
Euren burua osorik,
zeinek dauka gehiagorik?
Jainko Semea kurutzan hilda,
nori ez biztu gogorik?
Ez bada beste kredorik,
dana be ez da askorik;
nun horrelako Jainkorik!

4

Noraezean batela,
gure Eleiza bezela,
galtzera goaz horrela.
Jaunari deia eginda gora,
galduak gara bestela.
Hau bai bikote itzela,
ondo izan zaitezela!
Gaur zuena da txapela!

5

Aurrean mila aukera,
biok erantzun batera:
"Bakarrik Jainkoa Bera".
Aita Frantzisko Erromakoa
dator txaloak jotera...
Hasi ta amaitu karrera
kirolarien antzera.
Aupa mutilak, aurrera!

6

Egin dozue profesia
bete da zuen ametsa
emonaz zuen baietza.
Kurutzeta da Pasiotarron
misioko lanabesa;
jarraipena da nekeza
eta giro aldrebesa,
baina ederra promesa.

7

Kristau eta katoliko
gaur dituzu ikusiko
hitza emon, jan ta kito...
Beste guztiak onak dirala,
zuen da berebiziko:
maiteminez Jesukristo
osorik eta betiko.,
erdizka ez baita nahiko,

8

Otoitz bat maitasunean
Jauna, Zuri zuzenean
gazte bion izenean:
Zaindu egizuz urte askotan
pozik ta osasunean,
zure ondoan lanean
eta gero azkenean
Zurekin zorionean.

A. Martzel